



ESKOLA PROGRAMA DIDAKTIKOA

2022 - 2023



ekoetxea
Txingudi



EKOETXEA TXINGUDI

Ekoetxea Txingudi Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak kudeatzen du, lhobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez.



Argazkiak: Plaiaundi artiboa / Playalde



Plaiaundiko Parke Ekologikoaren sarreran kokatzen den interpretazio zentro honetan egunetik egunera hainbat eta hainbat jarduera desberdin landu eta proposatzen dira. Jorratzen diren gai guztiek Eusko Jaurlaritzak proposatutako ingurumen estrategien bidea jarraitzen dute, eta, batez ere, ingurumen-hezkuntza eta iraunkortasuna azpimarratzen dituzte.

Zer aurki dezakegu Ekoetxea Txingudin? Parkeko zein Txingudiko badiako naturarekin erlazionatutako informazio guztia, batez ere, Jaitzubia eta Plaiaundiko fauna, flora, eta ekosistemak. Bisitariak harreran eskuragarri ditu mota desberdinetako liburuxkak (Txingudiko hegaztiak, Zuhaitz eta zuhaixkak, Landare belarkaren gida, Jaitzubiako ibilaldi autogidatua, Odonatuak, Habitatak, Txingudiko Padurak...). Bisitariak Ekoetxeara sartu bezain laster Txingudiko badiaren historia, kokapena, eboluzioa eta garrantzia azaltzen dituzten panelekin egingo du topo. Interpretazio zentroaren erdian Txingudiko badiaren airetiko ikuspegia duen maketa esanguratsu bat kokatzen da non eskualdeko babes bereziko guneak markatuta adierazten diren. Plaiaundiko Parke Ekologikoa zerbaitek bereizgarri egiten badu hori padura eta marrearteko ekosistemak dira. Bideoan xehetasun osoz azaltzen dira ekosistema horien nondik norako guztiak. Uretatik lurrerako trantsizio horretan bizi diren fauna eta flora nabarmentzen dira bertan. Bisitaldian zehar landutako teoria praktikara eramateko asmoz hegaztiak behatzeko parada dago zentroko bi behatokietan. Prismatikoez baliatuta, zorroztu zentzumenak eta begiratu... ezusteko bat baino gehiago hartuko duzu.

TXINGUDI: URAK ETA LURRAK BAT EGITEN DUTEN EREMU NATURAL IKUSGARRIA

Txingudiko hezegunea Bidasoa eta Jaizubia ibaiek Kantauri itsasora itsasoratzean sortzen duten estuarioa da. Habitat berezi batzuk eratzen ditu: itsas labarrak, hondartzak eta dunak, padurak eta ibaietako habitatak. Plaiaundi, Jaizubia, Bidasoako uharteak, Bidasoa ibaiaren terrazak eta estuarioko ur irekiak hartzen ditu.

Txingudik hezeguneetarako dau-
den babes-figura handienak ja-
sotzen ditu:

Natura 2000 Sarearen barruan
sartuta dago:

- 2000. urtean Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) izendatu zuten.
- 2004. urtean Batasuneko Garrantzizko Leku (BGL) gisa esleitu zuten.
- 2013. urtean Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) bezala hautatu zuten.

Gainera, 2002.urteetik Ramsar Konbentzioko nazioarteko garrantzia duten hezeguneen zerrendan dago.



ESKOLA PROGRAMA DIDAKTIKOA

2030erako Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategian ezarritako “Ekintzarako Hezkuntza”-ren helburuarekin bat etorriz, Ekoetxea Txingudik eskolako programa didaktiko bat proposatzen du, metodologia eta tresna berriak erabiliz, iraunkortasunaren esparruan gizarte bidezkoago eta aktiboago bat sortzen lagunduko duen hezkuntza eraldatzaile batera bideratua. Horrela, programa honek aukera eman nahi die ikasleei naturaz gozatzeko eta naturarekin konektatzeko, eta esperientzia zuzen eta errealak eskaintzeko Txingudiko paduretan, bizitzaz beteriko hezegunean.

Ekoetxea Txingudik planteatutako unitate didaktikoen helburua paduren balio hori erakustea da, eta, aldi berean, herritar sentikorragoak eta arduratsuagoak prestatzea. Horretarako, edukieta ez ezik, gaitasunetan, ikasleen gogoeta-gaitasunaren garapenean eta inguratzen gaituen inguruneari balioa emateko arlo sozial eta afektiboaren integrazioan oinarritutako ikuspegia planteatzen da.

Ekoetxea Txingudiko eskola programa didaktikoko unitate didaktiko guztiak eskola-kurrikulumera egokituta daude. Eskaintzen diren jarduerak kurrikulum-eko helburuak betetzeko zein bestelako jarduerak osatzeko erabilgarriak izan daitezzen bilatzen dugu, baita bertan agertzen ez diren gai interesgarriak lantzeko ere.



Hauk dira eskola programa didaktikoaren helburu nagusiak:

- Naturarekin harremanetan egoteko, ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematea.
- Hezegunea elementu pedagogiko gisa erabiltzea ingurumen-ezagutzak, trebetasunak eta balioak barneratzeko, ikasleek jasangarritasunerako bidean ekarpen positiboa egiteko gaitasuna eta adorea izan dezaten.
- EAEko ingurumen-egoerari buruz sentsibilizatzea eta kontzientzia harraraztea.
- Bioaniztasunarekin loturiko gaietan hezkuntza formalaren osagarri izatea.
- Hezeguneen kontserbazioak eta erabilera arrazionalak duten garrantziari buruz ikasleak hezi eta trebatzea
- Ikasleen parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea Txingudiko paduren kontserbazioan.

BISITAREN ANTOLAKETA

Ekoetxea Txingudiko eskola bisitak astelehenetik ostiralera goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00ak arte egingo dira. Bisitaren arabera 2 edo 3 orduko iraupena izango dute, tartean atsedena egongo da hamaiketakoa jateko. Bisita aurretik eta ondoren ikasgelan landu daitezkeen unitate didaktikoak eskaintzen ditugu.



Ekoetxea Txingudiko bisitaren nondik norakoak aurkezten dizkizuegu jarraian:

- Sarrera
- Ekoetxea Txingudi Ingurumen zentrora bisita
- Plaiaunditik ibilaldia (Km 1)
- Jarduera (aukerakoa)
- Gogoeta eta agurra



GOMENDIOAK:

Bidalitako material, unitate didaktikoak esaterako, aurretiaz lantzea gomendatzen da.

Aukerakoa da norberak hegaztien minigida inprimituta ekartzea. Horrela egin ezean Ekoetxean bertan emango da.

Etiketetik prismatikoak ekartzea gomendatzen da. Ekarri ezean, mailaguan hartu daitezke Ekoetxean.

Arropa egokia ekarri.

ERABILGARRI DAUDEN UNITATE DIDAKTIKOA

Ondorengo taulan 2022-2023 ikasturterako erabilgarri dauden unitate didaktikoak adierazten dira.

UNITATE DIDAKTIKOA	ESKOLA PROGRAMA DIDAKTIKOA						
	HAUR HEZKUNTZA	LH 1 ^{go} ZIKLOA	LH 2. ZIKLOA	LH 3. ZIKLOA	DBH 1 ^{go} ZIKLOA	DBH 2. ZIKLOA	BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETA UNIBERTSITATEA
<i>Padurako sentsazioak</i>	●						
<i>Nori erori zaio mokoa?</i>		●	●				
<i>Padurako katea</i>			●	●			
<i>Izaki txikiak, protagonista handiak</i>				●			
<i>Migrazio-bideak eta zeruko autobideak</i>					●	●	
<i>Nola behatu hegaztiak? Ornitologiaren hastapenak</i>						●	●
<i>Enigmen jokoa: Abentura Ekoetxean</i>							●
<i>Txingudiko hegaztiak</i>		●	●	●	●	●	●

*Ordutegi malgutasuna unitate didaktiko bakoitzean

Laburpena:

“*Padurako sentsazioak*” unitate didaktikoa Haur Hezkuntzako ikasleentzat da. Unitate hau heziketa emozionalean oinarrituko da eta bere helburua ikasleak emozioen bidez Txingudiko paduretako paisaian murgiltzea izango da. Horrela, hezegunearen paisaiak identifikatu nahi dira, paisaiek sortzen dituzten sentsazio eta emozioekin erlazionatuz.

Helburuak:

- Txingudiko paisaiak ezagutzea, formak, koloreak, usainak eta soinuak identifikatuz.
- Zentzumenen erabilera sustatzea, ingurunea balioesteko.
- Paisaian ikusten diren inpaktuak identifikatzea, emozio positiboak eta negatiboak bereiziz.

Jarduerak (2 ordu - 2 ordu eta 30 min):

- Ongietorria (10 min).
- Ekoetxeara bisita (30 min).
 - Ikus-entzunezko emanaldia (15 min).
 - Bisita gidatua erakusketa iraunkorrera (15 min).
- Interpretazio ibilbidea Plaiaunditik (km 1 / ordu 1)
- Aukerakoa: “*Sentsazioen horma-irudia*” jarduera (30 min).
- Gogoeta eta agurra (5 min).

Bisitaren prezioa: 1 € ikasle bakoitzeko.

1^{go} UNITATE DIDAKTIKOA

Padurako sentsazioak



Laburpena:



“*Nori erori zaio moko?*” unitate didaktikoa Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloko ikasleentzat da. Unitate honen helburua padu-retan dauden espezieak eta berauek ingurunera nola egokitzen diren ezagutzera ematea da, batez ere, haien morfologia aztertuz. Hari eroale horrek hegaztien ezaugarriak identifikatzen lagunduko digu, izan ere, hegaztiak bizi diren habitatekin erlazionatuta baitago.

Helburuak:

- Txingudin dauden hegazti-espezie nagusiak ezagutzea eta zein habitatetan bizi diren identifikatzea.
- Hegaztien ezaugarri morfologikoak eta haien funtzionaltasuna aztertzea.
- Txingudiko padura babesteko eta kontserbatzeko arrazoiak identifikatzea.

Jarduerak (2 ordu - 2 ordu eta 30 min):

- Ongietorria (10 min).
- Ekoetxeara bisita (30 min).
 - Ikus-entzunezko emanaldia (15 min).
 - Bisita gidatua erakusketa iraunkorrera (15 min).
- Interpretazio ibilbidea Plaiaunditik (km 1 / ordu 1)
- Aukerakoa: “*Moko fineko jatuna*” jarduera (30 min).
- Gogoeta eta agurra (5 min).

Bisitaren prezioa: 1 € ikasle bakoitzeko.

2. UNITATE DIDAKTIKOA

Nori erori zaio moko?



Laburpena:



“*Padurako katea*” Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleei zuzenduta dago. Ekosistemaren kontzeptua ulertzeko eta bertan bizi diren espezieen eta ingurumen faktoreen arteko erlazioak aztertzeko unitate didaktikoa da. Txingudiko paduran gertatzen diren prozesu eta elkarreagin batzuetan sakontzen da, hala nola Txingudiko espezieen elikadura-sare anizkoitzetan. Kate trofiko horiek oreka dinamiko, konplexu eta hauskorra osatzen dute, nahitaez zaindu beharreko ekosistema da.

Helburuak:

- Txingudiko paduretako habitat nagusiak behaketaren bidez identifikatzea, ezagutu eta baloratzeko.
- Txingudiko paduretan bizi diren espezieen arteko harremanak ezartzea, espezieen arteko oreka mantentzearen garrantzia ulertzeko.
- Txingudiko padura babesteko eta kontserbatzeko arrazoiak zeintzuk diren identifikatzea.

Jarduerak (2 ordu - 2 ordu eta 30 min):

- Ongietorria (10 min).
- Ekoetxeara bisita (30 min).
 - Ikus-entzunezko emanaldia (15 min).
 - Bisita gidatua erakusketa iraunkorrera (15 min).
- Interpretazio ibilbidea Plaiaunditik (km 1 / ordu 1)
- Aukerakoa: “*Harremanak estutzen*” jarduera (30 min).
- Gogoeta eta agurra (5 min).

Bisitaren prezioa: 1 € ikasle bakoitzeko.

3. UNITATE DIDAKTIKOA

Padurako katea



Laburpena:



“*Izaki txikiak, protagonista handiak*” unitate didaktikoa Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleei bideratuta dago. Unitate honen helburua makroornogabeetan arreta jartzea da, naturaren orekarako ezinbesteko izakiak baitira. Aintzira gozo eta gazien ekosistemen kalitatearen adierazle ezin hobeak izateaz gain oso interesgarria den metamorfosi prozesua gauzatzen dute zenbaitetik. Txingudiko aintziretan bizi diren izaki txiki horiek ezagutuko ditugu, beraien bizi-zikloaren etapa guztiak aztertzeaz gain, urmael bateko bizitza nolakoa den ikertuko dugu.

Helburuak:

- Txingudiko aintziretan dauden makroornogabe nagusiak identifikatzea, ekosistema gisa duten interesa baloratzen ikasteko.
- Aintziretako eta marearteko ekosistemen arteko desberdintasunak ezagutzea, Txingudiko aberastasuna ulertzeko.
- Espezie bioadierazleen garrantzia aztertzea eta ekosisteman duten ingurumen-balioa ulertzea.

Jarduerak (2 ordu - 2 ordu eta 30 min):

- Ongietorria (10 min).
- Ekoetxeara bisita (30 min).
 - Ikus-entzunezko emanaldia (15 min).
 - Bisita gidatua erakusketa iraunkorrera (15 min).
- Interpretazio ibilbidea Plaiaunditik (km 1 / ordu 1)
- Aukerakoa: “*Makroornogabeak identifikatzen*” jarduera (30 min).
- Gogoeta eta agurra (5 min).

Bisitaren prezioa: 1 € ikasle bakoitzeko.

4. UNITATE DIDAKTIKOA

Izaki txikiak, protagonista handiak



Laburpena:



“*Migrazio-bideak eta zeruko autobideak*” unitate didaktikoa De-
rigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. zikloko ikasleei dago
zuzenduta. Hegaztien migrazio-ibilbideen eta Txingudiko padu-
raren garrantziaren inguruan jardungo da unitate didaktikoa. Eu-
ropako hegaztien migraziorako nahitaezko igarobidea da Txin-
gudiko badia. Zergatik da Txingudiko padura horren baliotsua?
Nola ikusten dugu hezegunea gure begiekin? Zergatik da horren
garrantzitsua hegaztien ikuspuntutik? Zergatik migratzen dute
hegazti gehienek? Galdera horiek guztiak unitate didaktikoan
lantzeaz gain, hegaztiak egiten dituzten ibilbideak ere aztertuko
dira. Horrela, hezegunea garrantzitsua dela eta berau babestea
gure esku dagoela jabetuko gara.

Helburuak:

- Txingudiko ornitologia-aberastasuna ezagutaraztea.
- Hegazti-mota nagusiak identifikatzen ikastea, migrazio-ere-
duen arabera.
- Euskal kostaldeak migrazio-bide gisa duen garrantzia azpima-
rratzea.
- Grafiko konplexuak egiten eta interpretatzen ikastea.

Jarduerak (2 ordu - 2 ordu eta 30 min):

- Ongietorria (10 min).
- Ekoetxeara bisita (30 min).
 - Ikus-entzunezko emanaldia (15 min).
 - Bisita gidatua erakusketa iraunkorrera (15 min).
- Interpretazio ibilbidea Plaiaunditik (km 1 / ordu 1)
- Aukerakoa: “*Gure klima ezagutuz*” jarduera (30 min).
- Gogoeta eta agurra (5 min).

Bisitaren prezioa: 1 € ikasle bakoitzeko.

5. UNITATE DIDAKTIKOA

Migrazio-bideak eta zeruko autobideak



Laburpena:

“*Nola behatu hegaztiak?* Ornitologiaren hastapenak” unitate didaktikoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. ziklora, Batxilergora, Lanbide Heziketara eta Unibertsitatera bideratuta dago. Unitate didaktikoa ornitologiaren ezagutzaren inguruan jardungo da. Hainbat jardueren bidez, hegaztien gidak erabiltzeko behar diren baliabideak emango zaizkie, eta Txingudiko hegaztirik ohikoenetako batzuk ezagutzeko gonbita egingo zaie. Hegaztien bizitzarekin eta haien behaketarekin lotutako hainbat aspektu desberdin jorratuko dira, hala nola, kantuak, migrazioa, erroldak, elikadura, etab.

Helburuak:

- Txingudiko ornitologia-aberastasuna ezagutaraztea.
- Hegaztien giden erabileran trebatzea.
- Txingudiko ingurumen-balioa goraipatzea.

Jarduerak (2 ordu - 2 ordu eta 30 min):

- Ongietorria (10 min).
- Ekoetxeara bisita (30 min).
 - Ikus-entzunezko emanaldia (15 min).
 - Bisita gidatua erakusketa iraunkorrera (15 min).
- Interpretazio ibilbidea Plaiaunditik (km 1 / ordu 1)
- Aukerakoa: “*Nire lehen esperientzia ornitologo bezala*” jarduera (30 min).
- Gogoeta eta agurra (5 min).

Bisitaren prezioa: 1 € ikasle bakoitzeko.

6. UNITATE DIDAKTIKOA

Nola behatu hegaztiak? Ornitologiaren hastapenak



Laburpena:

“Enigmen jokoa: Abentura Ekoetxean” Batxilergora, Lanbide Heziketara eta Unibertsitatera bideratuta dagoen unitate didaktikoa da. Jolas bati egokitutako ikaskuntzan oinarritzen da, helburua, ikasleak abentura batean murgiltzea da Txingudiko padurako ingurune pribilegiatuaren balio naturalak ezagutzeko. Ihes-jokoen metodologia berritzailearen bidez motibazioa eta intriga lehenesten dira eta erronken bidez ebaztu beharreko frogak egongo dira. Ekoetxea Txingudik sustatzen duen errespetu, kontserbazio eta garapen iraunkorreko mezua zabaltzeko eta hezteko tresna aparta izango da.

Helburuak:

- Txingudiko paduraren balio naturalak erakustea, metodologia berri baten bidez.
- Naturgune bat babestu eta kontserbatzeko garrantzia ezagutzea.
- Dinamika ludikoak erabiltzea ingurumen jakituria hedatzeko.
- Txingudiko hezegunearen habitatak eta berezitasunak nabarmentzea.
- Padurak hegaztientzako funtsezko leku gisa identifikatzea

Jarduerak (2 ordu - 2 ordu eta 30 min):

- Ongietorria (10 min).
- Ekoetxeara bisita (30 min).
 - Ikus-entzunezko emanaldia (15 min).
 - Bisita gidatua erakusketa iraunkorrera (15 min).
- Interpretazio ibilbidea Plaiaunditik (km 1 / ordu 1)
- Aukerakoa: *“Gure klima ezagutuz”* jarduera (30 min).
- Gogoeta eta agurra (5 min).

Bisitaren prezioa: 1 € ikasle bakoitzeko.

7. UNITATE DIDAKTIKOA

Enigmen jokoa: Abentura Ekoetxean



Laburpena:

“*Txingudiko hegaztiak*” Lehen hezkuntzara, Bigarren hezkuntzara, Batxilergora, Lanbide Heziketara eta Unibertsitatera bideratuta da-goen unitate didaktikoa da. Unitate honek Txingudiko paduretako balio natural eta ekologikoen ikuspegi orokorra emango die ikasleei. Bere kokapen geografikoa azpimarratzen da, eta horrek Europako hegaztien migrazio eta negupasarako funtsezko puntu bihurtzen du, Atlantiko ekialdeko migrazio bidearekin bat datorrelako. Gainera, itsasertza padura-sistemearekin, aintzira gozoezin, ibaiertzeko ba-soekin eta zelai hezeko eremuekin elkartzen denez, Europa osoko hegazti migratzaileei atsedean hartzeko, elikatzeko eta babesteko eremuak eskaintzen dizkie Txingudik, eta, aldi berean, gune interes-garria da neguko, udako, eta hegan doazen hegaztientzako. Horri esker, urtean zehar hegazti mota desberdinek bisitatzen dute Txin-gudi.

Helburuak:

- Plaiaundiko padurak Txingudiko hezegunean duen berezko ga-rrantzia baloratzea, balio naturalagatik eta hegaztien migrazioan duen garrantziagatik babestu beharreko eremu gisa.
- Plaiaundin aurki daitezkeen espezie garrantzitsuenak identifikatu eta interpretatzea, hegaztietan oinarrituta bereziki.
- Bisitaria naturgune babestuen inguruan informatu, sentsibilizatu eta kontzientziatzea, eremu hori zaintzeko eta babesteko dugun gaitasunaz gogoeta egin dezan.

Jarduerak (2 ordu - 2 ordu eta 30 min):

- Ongietorria (10 min).
- Ekoetxeara bisita (30 min).
 - Ikus-entzunezko emanaldia (15 min).
 - Bisita gidatua erakusketa iraunkorrera (15 min).
- Interpretazio ibilbidea Plaiaunditik (km 1 / ordu 1)
- Gogoeta eta agurra (5 min).

Bisitaren prezioa: 1 € ikasle bakoitzeko.

8. UNITATE DIDAKTIKOA

Txingudiko hegaztiak




INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA

Gurekin harremanetan jartzeko deitu lasai **943 619 389** telefonora edo idatziguzu **hezkontza.txingudi@ekoetxea.eus** posta elektronikora.



Pierre Loti Ibilbidea, z/g
Plaiiaundiko Parke Ekologikoa
20304 Irun (Gipuzkoa)



Azpiegiturak:

- Pic-nic gunea.
- Autobusentzako aparkalekua.
- Komunak.
- Jolas-gunea.
- Iturria eta zakarrontziak.

Nola iritsi:

Trenez:

— euskotren

Euskotren. Lasarte-Oriatik Hendaiarako linea. Informazio gehiago eta ordutegiei buruzko kontsultak egiteko:

www.euskotren.eus/eu/tren/horarios

Irungo geltokian jaitsi eta 10 minutu oinez eginez gero Ekoetxeara iritsi daiteke.

Trenez:

— renfe

Renfe aldiriak. Brinkola-Irun linea. Informazio gehiago eta ordutegiei buruzko kontsultak egiteko:

www.renfe.com/es/eu/cercanias/cercanias-donostia

Irungo geltokian jaitsi eta 10 minutu oinez eginez gero Ekoetxeara iritsi daiteke.

Autobusez:

— LURRALDEBUS

Lurraldebus. Ondorengo linkean Irunen dauden linea desberdinen informazioa bitatu dezakezu:

www.lurraldebus.eus

Errepidez:

Errepide nazionala GI-636 Donostia-Behobia. Irunen errepidetik zehar zein desbideratze hartu behar den adierazita dago karte handien bitartez. Kartei jarraituz Ekoetxea Txingudira iritsi daiteke.

🏠 Pierre Loti Ibilbidea, z/g. 20304 Irun

☎ 943 619 389

💻 www.ekoetxea.eus/txingudi

✉ hezkuntza.txingudi@ekoetxea.eus



ekoetxea
Txingudi

